

Emakume eta gizonen  
berdintasunerako  
**Euskal Kirol Federazioen**  
**Batasunaren** Plana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA



## AURKIBIDEA

1. Sarrera .....	3
2. Analisia .....	4
2.1 Egitura.....	4
2.2 Komunikazio arloa.....	8
2.3 Kirol arloa .....	13
3. Plana.....	14
A. Egitura.....	14
B. Komunikazio arloa.....	15
C. Kirol arloa .....	16
4. Adierazleak .....	17
5. Kronograma .....	18

## TAULA ETA IRUDIEN AURKIBIDEA

### TAULAK:

1. EKFBeko langile-egitura .....	6
2. EKFBeko Zuzendaritza-Batzordearen egitura .....	6

### IRUDIAK:

1. EKFBren barne dauden federatutako lizentzien portzentaia sexuaren arabera 2006 .....	5
2. EKFBeko web orriko aurkezpen argazkia .....	9
3. EKFBeko web orriko "Argazki galeria"-ren lehenengo orria .....	10
4. EKFBeko web orriko "Albisteak" atala.....	11

## 1. Sarrera

Euskal Autonomi Erkidegoak badu jada berdintasunerako politika publikoetan ibilbide bat egina. 1988an Emakunde sortu zenetik gaur arte, Gobernu Kontseiluak emakume eta gizonen berdintasunerako ekintza positiboko lau plan onartu ditu eta hauetan guztietan kultura eta kirola esku-hartzeko eremuak bezala ageri dira.

Era berean, Euskadiko kirol araudietan emakume eta gizonen berdintasunerako egiten diren aipamenak ugartuz doaz, emakumeak kirol jardueran hastearen garrantzia azpimarratzeaz gain (Kirolaren Euskal Legea 14/1998), kirol federazioei emakume eta gizonen berdintasunerako *ekintza positiboko planak egin, onartu eta burutu* behar izatea ere aipatzen du (Euskal Kirol Federazioen Dekretua 16/2006, XIV Izenburua, 169. artikulua).

2007ko ekainean Eusko Jaurkaritzak euskal kirol federazioetan emakume eta gizonen berdintasuna ziurtatuko duen proiektua abian jarri zuen eta proiektuaren ardatza federazioetan Berdintasunerako Planak egitea da, hain zuzen ere. Euskal Kirol Federazioen Batasunak (EKFB), euskal kirol federazio gehienak batzen dituen erakundea izaki, proiektuan erreferente izan nahi du eta lidergoa izan euskal federazioen esparruan berdintasunerako gauzatzen diren ekintzetan.

Horrenbestez, lidergoa izan eta erreferente bihurtu nahiak, beste zenbait gauzen artean, Berdintasunerako Plana egitea bultzatu du EKFB, euskal kirol federazioekin lotura duen erakunde batean gai hau jorratzen duen lehenengo plana izanik.

Euskal federazioen esparruan pausu garrantzitu bat da honako hau, euskal kirol federazioetan emakume eta gizonen aukera berdintasuna lortzeko helburuarekin aro berri bati hasiera ematen baitzaio.

## 2. Analisia

### 2.1. Egitura

2003ko uztailaren 23an onartu zen administratiboki Euskal Kirol Federazioen Batasuna eta egun berean eman zen izena Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistroan.


EKFBeko estatutuen arabera honako funtzioak hartzen ditu bere gain (EHAako 175. alea, 2003ko irailak 9):

- Kirol Administrazioari aholkularitza ematea, kirol federazio bakoitzak eta beste organoek aholkatzeko duten ahalmena kaltetu gabe.
- Euskal kirol federatuen hobekuntza eta garapenerako oinarri komunen garapena.
- Kirol federazioen helburuen defentsa eta hobeto betetzearen sustapena.
- Kirol federazioen probetxurako estruktura administratibo komunen edo laguntza teknikoaren ezarpena.
- Euskal kirol federatua bere osotasunean ordezkatzea.
- Kirol federazioen arteko elkartasuna eta harmoniaren sustapena eta arbitraje, bitartekotza eta adiskidetze lanak bere gain hartzea euskal federazio esparruan hika-mikak konpontzeko.

- Euskal Herriko edo beste inguruetakoak diren, eta Euskal Kirol Federazioen Batasunaren antzeko ezaugarriak dituzten kirol erakundeekin elkarlana egiteko erlazioak ezartzea.
- Euskal kirol selekzioek beste herrialdeetako, nazioetako edota eskualdeetako selekzioekin txapelketetan parte hartzea posible egingo duten nazioarteko izaera duten erakundeen sustapena.
- Euskal kirol federatuaren sustapena atzerrian.

Gaur egun euskal kirol federazio guztiak, berrogei eta hamar hain zuzen, EKFBaren barne daude. EKFBk guztira 167.044 lizentzia biltzen ditu, 39.043 emakumeenak izanik eta gainontzeko 128.001 gizonenak, hau da, %23 eta %77 hurrenez hurren.

### 1 Irudia. EAeko federatutako lizentzien portzentaia sexuaren arabera 2006



ITURRIA: EKFB

EKFBeko langileak guztira lau dira, ondorengo egitura osatuz:

**1 Taula. EKFBeko langileen egitura**

Lanpostua	Sexua	Noiztik
Gerentzia	Gizonezkoa	2003
Idazkaritza	Emakumezkoa	2004
Administrazioko arduraduna	Emakumezkoa	2007
Hedabideetako arduraduna	Emakumezkoa	2007

**ITURRIA: EKFB**

Bi urtez inor kontratatu gabe egon ostean, 2007.ean bi kontratazio burutu ziren: administrazioko arduraduna eta hedabideetako arduraduna. Gaur egun langile guztiek egun osoko lanaldia dute.

Zuzendaritza-Batzordeari dagokionez, bost gizonezkoek osatzen dute, 2004ko hauteskundeetan EKFBko Zuzendaritza lortu zuen talde berberak.

**2 Taula. EKFBeko Zuzendaritza-Batzordearen egitura**

Kargua	Sexua	Noiztik
Presidentetza	Gizonezkoa	2005
Presidenteordetza	Gizonezkoa	2005
Idazkaritza	Gizonezkoa	2005
Diruzaintza	Gizonezkoa	2005
Bokala	Gizonezkoa	2005

**ITURRIA: EKFB**

Euskal kirol federazioetan presidentetzan dauden hiru emakumeak EKFBeko Batzar Nagusian egon badauden arren, bakar batek ere ez du Zuzendaritza-Batzordean parte-hartzerik.

Zuzendaritza-Batzordea hauteskondeak irabazten dituen hautagaiaren proposamenaren arabera egituratzen da. Hasera batean EKFBko presidentek emakume hauetako bat taldean sartzea pentsatu zuen arren, ideia hau alde batera uztea erabaki zuen emakume hauek lehen aldiz hasten zirelako norbere federazioaren presidentetzan eta egokiago iruditzen zitzaielako esperientziadun jendeaz baliatzea.

Hala eta guztiz ere, EKFBk proposatuta, hiru emakume hauek Kirolaren Euskal Kontseiluko partaide dira *modalitate ez-olinpikoetako kirol federazioen* ordezkari (guztira 9 federazio daude arlo honi dagokionez).

Nolanahi ere, kontuan izan behar da emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak (1 Kapituluak, 23. Artikulua) dioena, "*Euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatu etako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoaren artean...emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadila sustatu behar dute*". Eta Lege hau eta 3/2007 emakume eta gizonen benetako berdintasunerako Lege Organikoan oinarrituz, 2008ko urtarrilaren 28ko Aginduak 61. Artikuluan, 4 atalean, zera dio: "*Zuzendaritza Batzorderako hautagaietan emakumeen eta gizonen arteko ordezkariak orekatua gorde behar da. Ordezkariak orekatutzat joko da baldin eta bi sexuok, gutxienez, %40ko ordezkariak badute. Hauteskunde prozesuaren denboraldian gizonen edo emakumeen federazio lizentziak %40tik behera diren kirol federazioetan nahikoa izango da gutxiengoa den sexuaren ordezkariak berdintzea edo gainditzea berari dagozkion federazio lizentzien ehunekoa*".

Horrenbestez, EKFBeko presidentetzarako hautagaiak xedapen hau kontuan hartu behar lukete.



## 2.2. Komunikazio arloa

Euskal kirol federazioak batu eta koordinatzen dituela kontuan hartuz, Euskal Kirol Federazioen Batasuneko eguneroko jardunean komunikazioa ezinbesteko baliabidea da.

EKFBak badaki arlo honek duen garrantzia eta, zentzu honetan, kalitatearen aldeko apostu finkoa egin du. Honen erakusgai dira hedabideetaz arduratuko den pertsona baten kontratazioa eta berdintasunerako komunikazio lantzearen saiakera, adibidez.

Arlo honi dagokion analisisian hiru aspektutan biltzen dira ondorio nagusiak: hizkuntza idatzian, hitzezko hizkuntzan eta irudietan.

### Hizkuntza idatzia

Orokorrean, Federazioen Batasunak hizkuntzaren erabilpen sexista ekiditeko saiakera nabaria da, batez ere, gertuko agenteekin harremana eguneroko dokumentuetan (gutunak, posta elektronikoa, inprimakiak). Bi tekniken erabilpena antzematen da nagusiki:

- Desdoblamendua (el/la)
- Pertsonalizaturiko moduak (estimada Nuria).

Hala eta guztiz ere, zirkularretan desdoblamendua (estimado/a) maskulinoarekin tartekatzen dela ikusi da (contamos con vosotros, esfuerzo de todos, jugadores federados,...), eta aukera lingüistiko honek nahasmena sor lezake.

Batasunaren liburuxka edo zabaltzeko materialean (Kirol ospakizunak antolatzeko protokoloa) hizkuntza zaindua antzematen den arren, barraren erabilpena gehiegizkoa da (el/la presidente/a...).


Azkenik, web orriko testuak, prentsa oharrak eta araudi gehienak maskulinoan idatzita daude.

## Irudiak

Bai web orriko irudi gehienetan eta baita bideoetan ere, protagonista nagusiak gizonak dira eta emakumeen presentzia, aldiz, oso txikia da.

Web orrian, gutxitan agertzen dira eta, orokorrean, jarduera estereotipatueta.

## 2 Irudia. EKFBeko web orriko aurkezpen argazkia



ITURRIA: [www.euskalkirola.com](http://www.euskalkirola.com)

### 3 Irudia. EKFBeko web orriko "Argazki galeria"-ren lehenengo orria



ITURRIA: [www.euskalkirola.com](http://www.euskalkirola.com)

## Beste zenbait gauza

EKFBeko web orrian emakumeen kirolari buruzko albiste gutxi ageri dira. EKFBk informazio hau guztia federazioetatik jasotakoaren arabera zintzilikatzen duen arren, ondo legoke EKFBk federazioei emakumeei buruzko albistek ere bidaltzea eskatzea.

## 4 Irudia. EKFBeko web orriko “Albistek” atala



The screenshot shows the website 'Euskal Kirol Federazioen Batasuna' in Microsoft Internet Explorer. The browser's address bar shows the URL 'http://www.euskalkirola.com/euskara/Frameset.htm'. The website content includes a navigation menu on the left with items like 'FEDERAZIOEN BATASUNA', 'EUSKAL KIROLA', 'FEDERAZIOAK', 'ALBISTEAK', 'AGENDA', 'ARGAZKI GALERIA', 'BIDEO GALERIA', 'ATLANTIAR ITXAS JOKUAK', 'GURE JANTZIAK', 'ARGITALPENAK', and 'EUSKAL KIROLAREN EGUNA'. The main content area is titled 'ALBISTEAK' and features two news items. The first is 'Karate: Euskal Selekzioak Collado Villalba IX. Nazioarteko Garakurrari parte hartuko du', accompanied by a photo of a karate match. The second is 'Txirrindularitza: Euskal Zirkokross Selekzioa Villarcavon gailendu da', with a photo of a cyclist. The website also displays logos for 'EUSKARA CASTELLANO ENGLISH', 'KIROL TARTEKARITZAKO EUSKAL AUZTEGIA TRIBUNAL VASCO DE ARBITRAJE DEPORTIVO', 'EKFB', and 'CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA'. The Windows taskbar at the bottom shows the 'Inicio' button, several open applications, and the system clock at 14:21 on a Friday.

ITURRIA: [www.euskalkirola.com](http://www.euskalkirola.com)

EKFBk dituen zabaltzeko bideoak aztertu ondoren (Galicia 2004 dokumentala eta Getxo 2008 hautagaitza), erabilitako hizkuntza guztiz maskulinoa dela esan daiteke (“nuestros deportistas”, “los euskaldunes”, “los vascos”, “los competidores”, “todos aquellos”,...).

### 2.3. Kirol arloa

Euskal Kirol Federazioen Batasunak berezko kirol jarduerarik ez duen arren, 2004az geroztik urtero Euskal Kirolaren Eguna antolatzen du eta bertan gura duten euskal federazio guztiek hartzen dute parte txapelketa, erakustaldi edo partaidetzako jardueraren bat antolatuz.

EKFBk beste federazioei egiten dien deialdiak izaera irekia eta borondatezkoa du eta azken hauek nahi duten jarduera mota antolatu dezakete.

Alde batetik, EKFBk antolatzen duen ospakizun honen helburuak ondorengoak dira: *federatutako euskal kirola indartzea; Euskadin egiten diren kirol ezberdinen hastapena, promozioa eta ezagutza sustatzea; Euskal Selektzioak aldarrikatzea; eta familia eta lagun artean gozatzeko aukera izatea, aisialdi osasuntsuaren bidez.*

Bestalde, 2006ko egitarauari dagokion alean hiru jarduera mota ageri dira: emakumeenak, gizonenak eta mistoak (softbola eta karatea, esaterako). Informazio honekin, ordea, ezin da jakin zein sexuk hartuko duen parte beste jardueretan edo zeini zuzenduta dauden.

Era berean, egitarau-liburuxkan azaltzen diren kirolarien irudi guztietan gizonak azaltzen direla azpimarratu behar da.

Ospakizun mota hauetan emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko bi neurri hartu ahal izango lituzke EKFBk: sentsibilizazioa edo kirolari emakumeen ikustaraztea.

### 3. PLANA

#### A. Egitura

HELBURUA	
Emakumeen partaidetza progresiboki areagotu EKFBeko iritzi-emate eta erabakitze esparruetan	
ESTRATEGIAK	A.1 Emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean eta 2008ko urtarrilaren 28ko hauteskunde – erreglamenduak prestatzeko aginduan ezartzen den bezela, kuota sistema bat edo presidentetzarako hautagaietan emakumeen presentzia ziurtatu.

## B. Komunikazio arloa

HELBURUA		
Berdintasunerako komunikazioa ziurtatu, hizkuntza eta irudien erabilpen sexista gaitzetsiz.		
ESTRATEGIAK	SENTSIBILIZAZIOA	B.1 Berdintasunerako komunikazioaz arduratuko den pertsona bat izendatu eta bere funtzioak zehaztu.
		B.2 Trebakuntza ikastaro bat jaso (langile guztiek)
	HIZKUNTZAREN ERABILPENA	B.3 Gutunentzat, posta elektronikoentzat, prentsa-oharrentzat eta inprimakientzat komunikazio ez sexistako eredu bat ezarri.
		B.4 Araudiak aldatu
		B.5 Eguneroko jardueran erabiltzen diren dokumentuak aldatu.
		B.6 Langile eta EKFBeko Zuzendaritzan hitzezko hizkuntzan komunikaziorako eredu ez sexita bat ezarri.
	IKUSTARAZI	B.7 Web orrian, triptikoetan, liburuxketan, logoan, bideoetan eta irudien galerietan emakumeak azaltzen diren irudien presentzia areagotu, emakumeak eta gizonak azaltzen diren irudi kopurua berdina izan arte.
		B.8 Estereotipoak hausten ari diren emakumeen irudiak gaineratu.
		B.9 Emakumeen kirolari lehentasuna eman edo ematen den informazioaren atal garrantzitsu bat izan dadila.



## C. Kirol arloa

HELBURUA	
EKFBk antolatzen dituen kirol jardueretan emakumeen partaidetza areagotu.	
ESTRATEGIAK	C.1 Parte-hartzeko oinarrizko araudi bat sortu Euskal Kirolaren Egunean, non federazioei sexu bakoitzeko jarduera bat antolatzea proposatuko zaien; edo jarduera bera, emakumeen zein gizonen presentzia izango duena.
	C.2 Ospakizuneko helburu nagusietan bai emakumeen bai gizonen partaidetzarako promozioa edo sustapena gaineratu.
	C.3 Egitarau-liburuxkan kirola egiten ari diren emakumeen eta gizonen irudiak erakutsi.

## 4. ADIERAZLEAK

ARLOA	ESTRAT.	ADIERAZLEAK.	
		BURUTU AD.	ERAGIN AD.
EGITURA	A.1	Kuota sistema sortu den edo ez.	EKFBeko Zuzendaritza-Batzordean emakumeen presentzia.
KOMUNIKAZIOA	B.1	Izendapena edo ez	Aldaketak-hobekuntzak komunikazioan
	B.2	Ikastaroa burutu den edo ez	Aldaketak-hobekuntzak komunikazioan
	B.3	Eredua definitu den edo ez	Aldaketak-hobekuntzak komunikazioan
	B.4	Aldaketak egin diren edo ez	Hizkuntzaren erabilpen ez sexista araudietan
	B.5	Aldaketak egin diren edo ez	Hizkuntzaren erabilpen ez sexista araudietan
	B.6	Eredua definitu den edo ez	Aldaketak-hobekuntzak hitzezko komunikazioan (zabaltzeko bideoak)
	B.7	Irudi kopurua areagotu den edo ez	Liburuxketan, logoan, bideoetan eta web orriko galerian emakume eta gizonen irudi kopuru orekatua
	B.8	Irudiak gaineratu diren edo ez	Estereotipoak hausten diren emakumeen irudi kopurua
	B.9	Lehentasunean edo ordenean aldaketak egin diren edo ez	Gizonen aurretik dauden edo kokapenean lehentasuna duten emakumeen berri kopurua
KIROLA	C.1	Araudian aldaketak egin diren edo ez	Emakumeen kiroleko jarduera kopurua eta emakumeen partaidetzan izandako aldea aurreko urteei dagokienez
	C.2	Helburua gaineratu den edo ez	---
	C.3	Emakumeen irudiak gaineratu diren edo ez	---



Avento Consultoria S.L. enpresak **Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailerako** eginiko proiektua.

Proiektuko koordinatzailea: **Ainhoa Azurmendi**

Edozein ohar edo iradokizun egin nahi izanez gero, ondorengo posta elektronikora idatz dezakezue: **[aazurmendi@aventoconsultoria.com](mailto:aazurmendi@aventoconsultoria.com)**

Ainhoa Azurmendi



E [info@aventoconsultoria.com](mailto:info@aventoconsultoria.com)  
[www.aventoconsultoria.com](http://www.aventoconsultoria.com)

Pokopandegi 11  
Oficina 012  
20.018 Donostia – San Sebastián

T 943 317 038  
F 943 317 048